

# TALKA-PLAN SOZIALA

## EKONOMIA SOLIDARIOA




Krisiari irtenbide sozial bat emateko, premiazko neurriez, eredu ekonomiko berri bat inplementatu behar da (bidezkoa, demokratikoa eta iraunkorra), kapitalismoa atzean utzi, aberastasuna birbanatu, desberdintasunekin amaitu eta naturarekin dugun harreman harraparia eraldatzen duena; azken batean, bizitza zentroan jartzen duena.

Horretarako, politika sozioekonomiko ausartak eskatzen ditugu sektore publikoa defendatzen dutenak, Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS) garapen-eremu espezifiko gisa onartzen dutenak, eta zuzenean baliabideak bertako pertsona zein egitura-sozioekonomiko eraldatzailerara bideratzen dituztenak.

ESS-aren ekimenak eredu berri honen esperimentazio-iturri dira:

- Ziklo ekonomikoaren fase guztietan jarduten dute (ekoizpena, banaketa, kontsumoa eta finantzazioa). Honez gain, zainketen kolektibizazioa eta bidezko banaketa bilatzen dute.
- Gizartearentzat baliagarriak diren ondasun zein zerbitzuak sortzen dituzte, eta premia kolektiboak irabaziaren gaineratik lehenesten dituzte, jardunbide eraldatzaileetatik abiatuta: gobernantza demokratikoa, komunitatearen ahalduntzea, bidezko ordainsari-politikak, lurralde errotzea, genero-berdintasuna, kultura-aniztasuna, trantsizio ekologikoa eta lankidetzeta.

**Beraz, egungo sistema ekonomikoa eraldatzeko inspirazio-iturri izan nahi dute, eredu iraunkor, demokratiko, solidario, bidezko eta feminista berri baterantz igarotzeko.**



ESS-ko enpresa eta erakunde askok hartu behar dituzten premiazko neurrien artean, uste dugu garrantzitsua dela beren jarduketetan gomendio batzuk egitea logika kapitalistak ez errepikatzeke eta biztanleria-segmentu ahulenen gaineko inpaktuak areagotzeko.

## KALERATZEAK SAIHESTEA, JARDUERA EKONOMIKOA ETEN ARREN

Aldez aurretik, ESS-ko erakundeek lana banatzeko beste barne-doikuntza aukerak aztertu behar dituzte, modu negoziatu zein adostuan, pertsonen lanpostuak ziurtatuko dituztenak. Azkenik, aukerak berrikusi ondoren, hartutako neurriak erakundea eusteko nahikoak ez badira, ERTE-a baloratu behar da, kaleratzeak saihesteko neurri **iragankor eta salbuespenezkotzat**.

Gobernuak onartutako salbuespenezko neurriei esker, oro har jarduera ekonomikoen ondorio gogorak arindu daitezke; eta, bereziki, funtsezkoak ez diren jardueretan.

## ERTE-EN ERABILERA IKUSPEGI SOLIDARIO BATETIK

ESS-ren ikuspegitik ezarritako ERTE bat, **langile guztien erantzunkidetasun kolektiboaren** logikatik elkarrekin adostutako mekanismo bat izan behar du, epe luzera bideragarria dela bermatzeko eta, beraz, lanpostu guztiak zaintzeko.

Enpresek eta erakundeek, funts propioekin edota aurrerakinekin, **prestazioen aurrerapena egiteko mekanismoak** ezarri behar dituzte. Hala izan ezean, kaltetutako pertsonak ez dute inolako errentarik eskuratzeko aukerarik izango epe laburrean.



**ERTE-en iragankortasuna soilik Gobernu zentralak aitortutako alarma-egoera** eta horren balizko luzapen edota aldaketek indarrean dirauten bitartean eta baldintzetan izango da.

Nolanahi ere, azpimarratu nahi dugu **ERTE-a zilegizko mekanismoa dela langile gehienek erabakian parte hartzen dutenean.**

## LARRIALDI SOZIAL ETA SOLIDARIORAKO FUNTS KOOPERATIBOAK SORTZEA

ESS-ko erakundeak funts horien sorrera sustatzen ari gara, bakoitzaren lurraldean larrialdiari zuzeneko irtenbideak ematen ari diren eta jasangarritasunerako baliabideak behar dituzten ekimen solidarioak finantzatzeko.

## BERROGEIALDIRAKO OINARRIZKO ERRENTA UNIBERTSALA ETA BALDINTZARIK GABEKOA EZARTZEA

Gobernuak oraindik zehaztu ez dituen premiazko neurrien artean dago Oinarrizko Errenta Unibertsal bat ezartzea, bereziki pertsona eta kolektibo ahulenei gutxieneko errenta baterasarbidea bermatuko duena.

### Informazio gehiago eta kontaktua:

[www.economiasolidaria.org](http://www.economiasolidaria.org)

[info@reas.red](mailto:info@reas.red)

[@Reas\\_red](https://twitter.com/Reas_red)

